



## La Jara-ren Kultur Astea martxan da, Extremadura ezagutarazteko

**TOLOSA** ▶ Olerki emanaldiak, jolasak, txapelketak, bazkariak, dantza... izango dira igandera arte

**ERAKUSKETA** ▶ Aste osoan bisita daiteke margolan erakusketa; gaur, olerkiak eta hitzaldia izango dira ▶ 3



Garbiñe Biurrun eta Maria Jesus Mendizabal bazkideek egindako lanak daude ikusgai La Jaran. N. LIZARTZA

**TOLOSA** ▶

### Denboraldiko lehen garaipena lortu du Tolosak, etxetik kanpo

0-2 irabazi diote urdinek Eibar B-ri,  
Orueren eta Azpirozen golekina ▶ 2

**LEITZA** ▶

### Dezente sufritu du Aurrerak, partida gogorrean

3-4 galdu dute  
leitzarrek Aibaresen  
aurka, Ligako  
estreinakoan ▶ 7



Jokalariak, zaleak agurtzen. J.A.

**TOLOSALDEA** ▶

### Kirol ikastaroak eta ekintzak aukeran ikasturte berrian

Alegian, Anoetan eta Bidegoianen  
zabaldu dituzte izen-emateak ▶ 4-5

**IBARRA** ▶

### Areto futbol taldea, denboraldi berriari ekiteko prest

Dagoeneko ezagutzen dituzte  
aurkariak eta Ligako egutegia ▶ 6

FUTBOLA ▶

# Denboraldiko lehen garaipena lortu du Tolosak etxetik kanpo

0 eta 2 irabazi zuen Unbe zelaian Eibar B taldearen aurka; Oruek eta Azpirozek sartu zituzten golak azken minutuetan



Bikain hasi du denboraldia Tolosak. Argazkian, Agurainen aurka. i. g.

## I. ETXEBESTE - N. LATABURU

Denboraldiari bikain ekin dio Tolosak, izan ere, hiru jardunaldiren ostean, ez du gaur artean porrota ezagutu. Herenegun, gainera, bere lehen garaipena eskuratu zuen («jokatze-ko aukerarik» izan ez zuen Eibar B taldearen aurka. Unbe zelaia bisitatu zuten urdinek eta norgehiagoka guztian haiek izan ziren nagusi fisikoki, bai eta joko aldetik ere, etxeko taldea «arazorik gabe» mendean hartuz. Tolosarren golak azken 15 minutuetan heldu ziren; lehenengo Eibar taldeko defentsaren huts egite baten ondorioz, Oruek ondo aprobe-  
tzen jakin zuena. Bigarrena, berriz, azken minutuan Azpirozek egin zuen, gorri-urdinen bi jokalarikaleratuak izan ostean.

Bisitariet «asko eta ondo» presionatu zituzten aurkariak, «zirrikiturik utzi gabe» eta, halaber, «amaieran izandako aukera onak» aprobeztatzen jakin zuten, Tolosako entrenatzaile Juan Manuel Luluagak azaldu duenez. Agurainen aurka eginiko akatsak konpontzen aritu dira mutilak aste guztian, eta horrek «bere emaitza onak eman zituen igandean».

Etxetik kanpo lehen garaipena lortu ostean, orain etxean ezin dutela barkatu dio, eta datorren astean Berazubini Lagun Onak taldearen aurka lehiatu-ko duen neurketan hiru puntuak lortzea «ezinbestekoa» izango du Tolosak. Hirugarren Mailan partidua guztiak oso zailak direla aitortu du entrenatzaileak; «hori dela eta, ezin gara erlaxatu hiru puntu lortu ditugulako, eta jardunaldiz jardunaldi irabazi behar dugu, joko ona eginez».

## EIBAR B ▶ 0

## TOLOSA ▶ 2

**Eibar B.** Imanol, Beñat Ramos, Endika, Avellaneda, Beñat Larrañaga, Intxausti, Mandiola, Unai Luluaga (Etxeberria, 60 m.), Edu (Castillejo, 81 m.), Armendariz (Saenz, 72 m.) eta Osoro.

**Tolosa.** Apezetxea, Lacalle, Unai, Ion, Artola, Romero, Orue, Azpiroz, Blanco (Crespo, 74 m.), Illunbe (Garagarza, 79 m.) eta Regillaga (Ekaitz, 90 m.)

**Golak.** 0-1: Oruek (77 m.); 0-2: Azpirozek (91 m.).

**Arbitroa.** Osanbela. Txartel horia atera zien Eibar B-ko Luluagari eta Osorori eta Tolosako Artolari. Gainera, zelaitik kanpora bidali zituen Eibar B-ko Avellaneda—77. minutuan bi txartel hori atera zizkion—eta Beñat Larrañaga—txartel gorria atera zion 80. minutuan—.

**Ikusleak.** 150 ikusle bildu ziren Unbe zelaian.

## SAILKAPENA ▶

### HIRUGARREN MAILA

| Taldea              | I | B | G | P |
|---------------------|---|---|---|---|
| 1. Amorebieta       | 2 | 1 | 0 | 7 |
| 2. San Pedro        | 2 | 1 | 0 | 7 |
| 3. Beasain          | 2 | 0 | 1 | 6 |
| 4. Arenas           | 2 | 0 | 1 | 6 |
| 5. UPV-EHU          | 2 | 0 | 1 | 6 |
| 6. Tolosa           | 1 | 2 | 0 | 5 |
| 7. Elgoibar         | 1 | 2 | 0 | 5 |
| 8. Laudio           | 1 | 2 | 0 | 5 |
| 9. Sestao           | 1 | 2 | 0 | 5 |
| 10. Aurrera Vitoria | 1 | 1 | 1 | 4 |

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Sukaldaria.** Asteburuatarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 69 19 33.

**Muntatzailea.** Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. Deitu honako telefono zenbakira: 665 70 09 79.

**Emakumea.** Informea dituen

eskarmentu handiko 34 urteko emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Telefonoa: 686 66 82 91.

### SALGA

**Furgoneta.** Volkswagen multiban TDI, 102 zaldi, SS-AW. Egoera onean. Telefonoa: 626 71 39 04. (Deitu 14:00etatik aurrera).

GIZARTEA ▶

## Benidormera oporrak antolatu ditu Harizpek

Hamabost egunekoak izango dira; urriaren 21ean irtengo dira, azaroaren 5era bitarte

### ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak oporrak antolatu ditu Benidormera joateko. Hamabost egunez, hango bi izarreko Fleming hotelean egongo dira izena ematen dutenak. Urriaren 21ean, ostiralez, atera eta azaroaren 5era arte iraungo dute oporrak. Bazkide direnek 390 euro ordaindu beharko dituzte bertara joan ahal izateko —bazkide txartela eguneratua aurkeztu beharko dute txartela erostetarako—, eta bazkide ez direnek, berriz, 395 euro. Bakar-kako gela nahi dutenek 188 euroko gehigarria ordaindu beharko dute. Halcon Visa txartelarekin ordainduz gero, %5eko beherapena izango dute bidaiarietara.

Prezio horretan sartuta daude joan-etorria egiteko autobusa, 14 gaueko egonaldia pentsio osoan ur edo ardoarekin, bidaia aseguru eta gidari laguntzailea egonaldi osoan. Txartelak dagoeneko salgai daude, eta izena emateko 100 euro ordaindu beharko da, aurrerapen gisa. Txartel hauek jasotzeko azken

eguna urriaren 10a izango da. Harizpe elkarteak Emeterio Arrese kalean duen egoitzan eman behar da izena. Argibide gehiago nahi dutenek 943 65 49 15 telefono zenbakira dei dezatela eskatu dute, astelehen, asteazken edo ostirale-tan, 10:00etatik 12:30era.

### «Hotel bikaina»

Antolatzaileek esan dutenez, Fleming hotela Benidorm erdialdean dago, Poniente hondartzatik 150 metrora. Gela guztiak kanpoaldera begira daude eta telefonoa dute denek; baita telebista ere. Horrez gain, igerilekua, solariuma terrazan eta telebista aretoa ditu hotelak. Otorduak buffet eraokak izango dira eta gaueko animazio programa jarriko dute abian hoteleko ardura-dunek.

«Garrantzitsua da autobusa betez gero bi plaza doan izango direla aipatzea». Harizpeko kideek diote autobusa betetzeko bada oporretarako izena ematen duten guztiei dago-kien beherapena egingo zaie-la. Beraz, litekeena da bidaia merkeago ateratzea.

GIZARTEA ▶



## Genero indarkeria salatuz

Joan den ostegunean Miarrizten mutil-lagun ohiak erahil zuen emakume gaztearen —29 urte zituen— heriotza salatze-ko konzentrazioa egin zuten atzo. Emakumeen Mundu Martxarako plataformak deituta, hainbat lagunek Trianguloan. **Emakumearen aurkako indarkeriari aurre egin!** lelopean egin zuten elkarretaratzea. IRATXE ETXEBESTE

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zorion agurrak.** Norbait zoriondu nahi duzula? Hitza egunkarian argitaratutako zorion agur guztiak Interneten ikusteko aukera duzu. Sartu eta ikusi!



KULTURA ▶

# Aurten ere abian da La Jarak antolatzen duen Kultur Astea

Larunbatean eman zioten hasiera La Jarakoek urtero egiten duten Kultur Asteari; festa behintzat ez da faltako



La Jarak antolatzen duen Kultur Astearen koadroen erakusketa dago, besteak beste. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

Beste urte batez ere hasiera eman diote La Jarakoek Kultur Asteari. Egitarau zabalak aurkeztu dute datorren aste honetarako; festa behintzat ez da faltako Extremadurako elkartearen egoitzan. Hamaikagarren urtea du aurtengoa Kultur Astea, eta «ilusioz beterik» ageri

dira antolatuak. Gainera, adierazi dute jende asko joaten dela antolatzen dituzten ekintzetara; batzuk jakinmin hutsez eta beste batzuk, berriz, parte hartzeko gogoz. Bertarantz diren guztiak eskuzabalik hartzen dituzte elkarteekin.

1993an ireki zituen La Jarak ateak eta, orduz geroztik, hainbat ekintza antolatu dituzte.

Hala ere, guztietan nagusia Kultur Astea da. Igandean, hilak 18, emango diote amaiera aste osoko festari.

## Erakusketa aste osoan

Eguneroko ekintzez gain, astean zehar ikusgai izango dira elkarte bi kideak, Garbiñe Biurrunek eta Maria Jesus Mendi-

## EGITARAU ▶

Egitarau zabalak aurkeztu dute datorren egunetarako:

### GAUR

**19:00.** Olerki errezitaldia. **Ondoren.** Extremaduraren gaineko hitzaldia egingo du Miguel Quintak.

### BIHAR, UMEEN EGUNA

**Egunean zehar.** Jokuak, marrazkiak, txokolatada... **19:30.** Lehiaketa: *Zer dakizu Extremaduraz.*

### ETZI, OSTEGUNA

**18:00.** Eskualdeko janariaren erakusketa: patata tortillak, tomate zukuak, entsaladak, gazpatxoak... Guztia Puerta Palma ardoaren dastaketarekin.

### OSTIRALA

**21:30.** Agintariekin afaria. **Ondoren.** Ekitaldia.

### LARUNBATA

**16:00.** Uztai eta mus txapelketa. **17:00.** Txintxona eta tute txapeleta.

### IGANDEA

**11:30.** Extremadurako meza, Arrameleko La Jarak Flor taldeak abestuko du. **12:30.** Toka eta igel-toka txapelketa. **14:30.** Herri bazkaria. **18:30.** Triana de Andoain taldearen emanaldia.

zabalek, egindako margolanak. Hogei irudi inguru ikus daitezke guztira. Elkartearen bertan dagoen gela batean daude guztiak. Urte asko darमतate erakusketa antolatzen eta arrakastatsua izaten dela azaldu dute elkarte kideek.

INGURUMENA ▶

## Agenda 21en Aholku Kontseiluko bilera

Bihar, pleno aretoan, Tokiko Agenda 21en Aholku Kontseiluko bilera egingo da. Berdintasunerako udal teknikariak Agenda 21en gainean egindako txostena aurkeztuko du, besteak beste.

EUSKARA ▶

## Aitzol udal euskaltegian matrikula zabalik

Hilaren 20a bitartean zabalik da Aitzol udal euskaltegi matrikula epea ikasle ohi zein berrientzat. Izena emateko ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara da. Zenbait taldeetan ikasle kopurua mugatua denez, matrikula garaiz egi-tea komeni da.

KIROLAK ▶

## Nafarrora irteera Alpino Uzturre elkartearekin

Datorren hilaren 18rako Ibañeta-Luzaidera irteera antolatu du Alpino Uzturrek. Goizeko zazpitan irteerako dira Pablo Gorosabeletik, eta Lauriñaga eta Argarai mendiak igoko dituzte. Joan nahi duenak Alpino Uzturrearen elkartean izena eman dezake; 10 euroren truke bazkideek, eta 12 euroren truke besteek. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 65 27 89 telefonora deitu edo elkartearen web orria kontsulta daiteke.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: enia@inmoernia.com  
www.inmoernia.com

**Altzo.** Ebe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.  
**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko ebe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.  
**Errazkin (Nafarroa).** Berrizteko dagoen borda salgai. 140 m2ko bi

solairu eta 1,200 m2ko lursaila.  
**Ibarra.** Euskalerrria kalearen hasieran 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen etxea salgai.  
**Ibarra.** Plaza inguruan garajea salgai.  
**Ibarra.** San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreintzeko!  
**Ikaztegieta.** Ebe abikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.  
**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik.  
**Tolosa.** San Esteban Auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.  
**Tolosa.** Bentaundi. 105m2ko ebe polita salgai su baju eta guzti.  
**Ikustekoa.**  
**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, sukaldea,

egongela, bainugela. Guztiz berritua.  
**Tolosa.** Amaro auzoan hainbat etxebizitza salgai igogailuarekin. Aukera paregabeak.  
**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m2-ko etxebizitza berrizteko igogailuarekin.  
**Tolosa.** Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreintzeko, guztiz berritua izan ondoren.  
**Tolosa.** Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!  
**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuneta eta bokoa.  
**Txarama inguruan.** 100m2ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

**Tolosa.** Larramendi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trasteleku ederra ganbaran.  
**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Egongela ederra. Ezin hobeto!  
**Tolosa.** Erdialdean. Guztiz berritua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 321.540 euro.  
**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 126 m2ko etxebizitza berritua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Laskurain. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz berritua.

**Tolosa.** Gernikako Arbola. 140 m2ko ebe paregabea salgai terraza eta igogailuarekin.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.  
**Tolosa.** Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.  
**Villabona.** Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.  
**Villabona.** Etxeondo. Pisu garajearekin. Pisu 3 logela eta 2 bainugelarekin.  
**Villabona.** Kale Berria. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bizitzen jartzeko moduan. 216.315 euro.  
**Villabona.** Eraikuntza berria 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea aukeran.  
**Villabona.** Kale berria 30 m2-ko garajea ixia salmentan.

## ZIZURKIL ▶ JAIK



## Herritarren parte-hartzea Arantzazuko Amaren jaien azken egunean

I. Garcia ▶ Bost egunetan Zizurkilgo Elbarrena auzoan Arantzazuko Amaren jaiak ospatu dituzte. Ekitaldi ugari izan dira, eta baita parte-hartzaileak ere. Horren adibide, igandean, festetako azken egunean, egin zuten herri krosa —ezkerreko argazkia— eta herritarren arteko herri kirolak —eskuinekoa—. Goizean izan zen Zizurkilgo V. Kros Herrikoa, eta bertan, 14 urte azpiko korrikalarien artean, Eneko Garin (Vi-

llabona) eta Tamara Lozano (Zizurkil) izan ziren azkarrenak. 14 urtetik gorako korrikalarien artean, berriz, Jose Javier Cuadrado (Zaldibia) eta Isabel Dumall (Asteasu) iritsi ziren lehenak. Arratsaldean, herritarrak lehiatu ziren elkarren artean herri kirolan. Ondoren, Perla Mariachi-k arratsalde euritsua alaitu zuen, eta bukatzeko Triku-Truku taldearen musika emanaldia izan zen. AINHOA LARREA

## AMASA-VILLABONA ▶ MENDIA

## Pirinioetara ibilaldia antolatu du Aizkardik asteburu honetarako

Larunbatean eta igandean egingo dituzte ibilaldiak; Garmo Negro hirumilako gailurra igoko dute bigarren egunean



Midi d'Ossau mendiaren ikuspegi bat. Asteburuko irteeran ikusi ahal izango dute mendizaleek. HITZA

## ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizaleen Elkarteak mendi irteera antolatu du asteburu honetarako, hilak 17 eta 18. Pirinioetara egingo dute irteera Villabonako elkarteroek. Lehenengo egunean, larunbatean, Candanchu-El Portalet ibilaldia egingo dute. Lehendabizi La Raca-ra igoko dira, eta segidan Astun eta Canal Roya bailaren arteko tontor-artetik jarraituz, Aneu-ko gailurra (2.364 metro) igoko dute. Urretetik Canal Roya-ko gailurra (2.331 metro) eta Peña Blanca (2.367 metro) igoko dituzte. Tontor hauetatik hegoaldera Canal Roya-ko bailara guztia ikusi daiteke. Anayet mendia guztiaren zaindari dela. Iparraldera Astun-eko bailara dago, eta Midi d'Ossau mendia, ibilbidearen bukaera erakutsiz.

El Portalet-eko mendatetik Panticosa-ko balnearioan dagoen Casa de Piedra aterpera joango dira autobusez, eta bertan igaroko dute gaua.

## Garmo Negro

Igandean hirumilako gailur batera igoko dira. Garmo Negro (3.066 metro) mendia igoko dute, eta berriz Panticosa-ko balneariora jaitsiko dira.

Ibilaldirako izena eman nahi duenak telefonoz egin dezake (943 69 44 58 zenbakian, eta Joxanengatik galdetu) edo Aizkardi elkartero egoitzara hurbildu daiteke. Izena emateko azken eguna etzi izango da, hilak 15.

Pirinioetarako ibilaldiaren irteera larunbatean goizean izango da, 06:30ean. Olaederra kiroldegian.

## ANOETA ▶

## Dantza eta pilota ikasteko aukera urritik aurrera

Hiru urtetik aurrera da dantza ikastaroa eta sei urtetik aurrera pilotakoa

## ERREDAKZIOA

Udalak antolatuta, dantza eta pilota ikastaroak emango dituzte Anoetan. Hiru urtetik aurrerakoentzat da dantza ikastaroa eta sei urtetik aurrerakoentzat pilotakoa. Klaseak urriaren 3tik aurrera izango dira. Izena eman nahi duenak hilaren 16a arte, ostirala, du aukera, 09:00etatik 13:00etara bitartean, udal-etxean.

Loatze musika eskolako ordutegiak kontuan harturik zehaztuko da ikastaroena. Taldeen zerrendak eta ordutegiak banatzeko, bilera bat egingo da udal-etxean hilaren 27an, asteartea: 17:30ean dantza eskolakoekin, eta 18:30ean pilota eskolakoekin. Hilaren 28tik aurrera zerrendak ikastolako ohar-taulan jarriko dituzte.

Honakoak izango dira prezioak: bai dantza eta bai pilotarako, astero ordu bat edo frakzioa 42 euro izango da, eta astero bi ordu edo frakzioa 56 euro. Pilotan astero hiru ordu edo frakzioa 70 euro. Ekonomikoki gutxiago dutenei lagundu nahian, deskontuak aplikatuko dira.

**JAKON**

INGELESA

Tel. 943-652372  
(10-12 eta 4-8)  
GOROSABEL 2 1º  
(TRIANGULOAN)  
TOLOSA

## IKASLE BERRIEI:

**URRIAK 3an** jarriko dugu martxan kurtso berria. Bakoitzari dagokion maila eta ordutegia erabakitzeko, interesaturik dagoena etor dadila ... **LEHEN BAIT LEHEN.**

## GURE IKASLEEI:

**IRAILAK 19an** jarriko dugu martxan kurtso berria. **MESEDEZ:** deitu edo etorri, ordutegia, maila eta beste guztiari buruz hitz egiteko.

**ESKERRIK ASKO**

ALEGIA-BIDEGOIAN ▶ IKASTAROAK

# Askotariko ikastaroak antolatu dituzte urte berriari begira

Kirol ikastaroez gain, mota askotako ekintzak egiteko aukera eskainiko dute 2005-2006 ikasturtean



Alegiako ikastaroetan izena eman nahi dutenek Kultur eta Kirol Etxera joan behar dute. J. GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Dudarik gabe, askorentzat promesa garaia izaten da iraila. Lagunek gimnasioan hasi behar dutela, bizilagunak ingelese ikasteari ekin behar diola, arrebak yoga ikastaro batean izena eman duela...Horrelakoak entzutean, askori pizten zaio zerbait egiteko gogoia. Baina, azkenean, askori eta askori ahotik joaten zaizkie indarra eta gogoia.

Hala ere, oraindik bada hitzari eusten dion jendea, eta ikasturte berriarekin zerbait egiten hasten dena. Horretarako aukera eskainiko dute aurtenean Alegiako Kultur eta Ki-

rol Etxeak eta Bidegoiango Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak.

Alegiako Inaxio Begiristain-Kultur eta Kirol etxeak antolatutako askotariko ekintza eta ikastaroak egiteko aukera izango da hasi berria den ikasturtean. Hiru ikastaro antolatu dituzte adin ezberdinetako jendeari begira. Batetik, gazte eta helduentzat, adina baldintza ez delarik, aerobic ikastaroa antolatu dute. Aipatu jarduerak hori egiteko, aukera zabala izango da. Alde batetik, asteleheneretan, asteazkenetan eta ostiraletan 18:30etik 19:30era aritu ahal izango da; eta, bestetik, asteartetan eta ostegune-

tan, 19:30etik 20:30era bitartean.

Beste ekintza bat mantentze gimnastikarena da. Ikastaro horretan ere, jende askok hartzen du parte, eta hori ikusita, aurtenean ere jarraitzea erabaki dute. Asteleheneretan, asteazkenetan eta ostiraletan, 14:45etik 15:45era jardun ahal izango da mantentze gimnasia. Azkenik, 3. adinekoen gimnasia dago. Adinekoentzat bereziki pen-tsaturik dagoen ikastaroa da, eta asteleheneretan, asteazkenetan eta ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara aritu ahal izango da.

Aipatu ikastaro horietakoren batean izena eman nahi

duen edonork, Kultur eta Kirol Etxera joan behar du. Goiz eta arratsalde egongo da irekita, ondoko ordutegiarekin: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara. Oraingo, ikastaro horiek soilik eskaintzen diren arren, aurrerago beste hainbat izatea ez dute baztertzen kultur etxeek.

Baina Alegiakoak ez dira bailaran antolatu dituzten ikastaro bakarrak. Izan ere, Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak Bidania eta Albizturko inguruko herritarrei ere zerbitzu bera eskaini nahi die. Horiek antolatzen hasteko lehen pauso gisa, bi bileretarako deialdia egin dute mankomunitatek. Lehen bilera, gaur, astearte izango da Albizturko udaletxeako pleno aretoan. Bigarrena, aldiz, bihar asteazkena izango da, Bidegoiango udaletxeako bigarren solairuan.

Bilera horietan, 2005-2006 ikasturteari begira Mankomunitatekoek burutzea pentsatu dituzten ikastaroen berri emango dute. Horien artean aurkitzen dira esaterako, eskulanena, automakila ikastaroa, yoga, botika naturalei buruzkoa, lorezaintzaren ingurukoa... Horretaz gain, norbaitek beste proposamenen bat balu, bileretara agertzea eta bere ideia aurkeztea eskatzen dute. Beraz, hasi berri den ikasturteari begira zerbait egin nahi duenak antolatu diren bilera horietara joan besterik ez du.

Eskaintza hain zabala izanik, jada ez dago aitzakiarik etxean atera gabe geratzeko. Alde batetik, ariketa fisikoa egin nahi dutenek, Alegian dute gorpuztari egurra emateko aukera. Bestetik, gauza berriak eta bereziak ikasteko gogoia dutenek, Bidegoian eta Albizturren burutuko diren ikastaroetan hartu dezakete parte.

Alegiaz eta Bidegoianez aparte, eskualde osoan bada kirolarekin zein beste edozein gairekin zerikusia duten ikastaroak egiteko aukera, Tolosa-ko kiroldegi berria kasu. Beraz, bailarako eskaintza hain zabala izanik, aprobeztatu beharra dago, eguna ez baita etxetik lanera eta lanetik etxera egiten den bidaiarekin amaitzen.

AMEZKETA ▶

## Finalak erabakita XVI. Joxean Tolosa Txapelketan

Eskualdeko pilotariek ezin izan zuten finalean izateko txartela lortu

J. GOIKOETXEA

Emozioz eta urduritasunez beteriko asteburu baten ondoren, ezagutzen dira jada XVI. Joxean Tolosa Txapelketako finalistak. Asteburuan jokatu dira azkenaurreko faseko partidak eta artean txapelketan zirauten bi eskualdeko pilotarik ez zuten finalera sartzeko txartela lortu.

Ostiral gauean hiru partidak izan ziren ikusgai. Kadeteetan, Peñasek finalerako txartela lortu zuen, Mitxelenari 18 eta 12 irabazita. Peñasek gogor egin behar izan zuen lan bere arerioa menperatzeko. Maila bereko beste finalerakoan, Iturrioz erraz nagusitu zitzaion Saez de Asteasuri. Eroso jokatu zuen Iturriozek, eta horren lekuko da markagailua, 18 eta 4koa erakusten baitzuen lehiarian amaieran. Maila nagusian, Jauregik lortu zuen finalerako lehen txartela. Joko serio bat eginez, 18 eta 10 nagusitu zitzaion Baez I.ari.

Larunbatean jokatu zen bigarren jardunaldia. Gazteetan, Iraolak lanak eman zizkion Larrañagari, baina 14 eta 18 galdu zuen azkenean. Maila bereko beste finalerdian, Gorrotxategik 18 eta 8 irabazi zion Elurberri. Lizartzarrok, ahaletan arren, ez zuen finalean sartzerik lortu. Azkenik, nagusien mailan, Arrutik Olazabal aresoarra kanporatu zuen 18 eta 8koarekin.

Igandean, sekulako giroa izango da Amezketan eta, beraz, arratsalde pasa ederra egiteko aukera izango da guri mailako pilotaz gozatuz.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Andoain.** 3 logela eta sukalde handia duen etxebizitza berritua. Argitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Lizartza.** 100m2 ko etxebizitza paregabekoa. 34m2ko garajea. Berria bezala. Aukera ederra. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Logela bateko apartamentua, terrazarekin.

Gazteentzako bikaina. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Berrikuntza. Erdialdean. Eraiki berria. 2 logela, trastelekua eta garajea aukeran. Eguzkitsua. Hesirik gabekoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Erdialdean. 2 logela dituen etxebizitza. Eraberritzeko. Etxe ona. Aukera. 32,000,000 pezeta (negoziagarriak). Etxesagasti

943 69 68 56.

**Villabona.** Erdialdean. Guztiz eraberritutako etxebizitza. Trastelekua. Bistak. Prezioa eztabaidatzeko. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Berehala sartzeko. Fatxada egoera onean. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Eraiki berria. 97m2ko pisu ederra. Apartekoa. Trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxek, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan. Itxaron zerranda dugu.

## LEABURU ▶

## Mindegia, Arrospide, Larretxea eta Nazabal lehian

I. TERRADILLOS

Herenegun jokatu zuten Leioan Aizkolariaren Txapeladunen Ligako azken sailkapen saioa. Bertan lehiatu ziren aizkolariak Mindegia, Olasagasti eta Arrospide izan ziren, eta leaburuarrak finalerako txartela lortua zuenez, beste bien artean izan zen lehia. Azkenean, espero zen bezala, Ezkurrakak mendean hartu zuen Olasagasti, puntu gehien batuz, eta ondorioz finalean lehiatuko den laugarren aizkolaria bera izango da.

Beraz, Aizkolariaren Txapeladunen Ligako finalean ariko direnak Arrospide, Larretxea, Nazabal eta Mindegia izango dira. Oraindik, ordea, hitzordua noiz eta non izango den zehazteko dago, hori telebistaren arabera izango baita.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Balzarain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## IBARRA ▶ FUTBOLA

# Denboraldi berriari ekiteko prest da areto futbol taldea

Multzoko lehenengo postuetan aritzeko itxaropen handia du taldeak aurten



lazio denboraldian Ibarrako Belabieta kiroldegian jokatuako partida bateko une bat. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Kinka larrian ibili zen Ibarra areto futbol taldea pasa den denboraldiko amaieran, izan ere, maila jaisteko zorian egon zen. Azkenean, ordea, zortea aldeko izan zuen, eta 2005-06 denboraldian ere Lehen A mailan lehiatuko dira ibartarrak.

Datorren hilaren 24an hasi-

ko dira baloia astintzen eta dagoeneko ezagutzen dituzte asetik astera izango dituzten arerioak, hau da, badakite zein izango den Ligako egutegia. Eta egutegi hori ezaguna den bezala, badakite jakin, euren multzoa 16 taldez osatua izango dela. Gipuzkoako 2 talde: Zuzenbide (UPV) eta Ibarra areto futbol taldea; 3 talde na-

far: Irurtzungo Xota, Ansoaino Gazte-Berriak eta Larrainzarko Ultzama; Arabako bi talde: Cafeteria Atenea eta Carnicerias Saenz, biak ere gasteiztarrak; 4 talde bizkaitar: Setao, Basauriko Soloarte, Portugaleteko Jarrilleros eta Durangoko Sasikoa; Kantabriako (Espainia) talde bat: Muriedas; 4 talde errioxar (Espainia): Al-

belda, Logroño (lehen Tomas Mingot), Arnedo (lehen Virgen de Vico) eta Deportivo Cerverano. Talde horien artean best dira mailaz igo berri direnak, Xota, Gazte-Berriak, Muriedas, Sasikoa eta Deportivo Cerverano.

Egutegiari dagokionez, Ibarra taldearen lehen hiru partidak Errioxako taldeen aurka izango dira. Lehena, hilaren 24an, etxean jokatu du, Belabieta kiroldegian, Logroñoren aurka, itxura batean, multzoko talderik gogorrenetako. Hurrengo astean ibartarrak Arnedora joango dira, eta hirugarrenean talde berrietako bat izango dute aurkar, Deportivo Cerverano, hain zuzen.

Ibarra areto futbol taldea osatuko duten jokalariei dagokionez, oraindik ere erabakitzeko dago nork utziko duen taldea eta zeintzuk izango diren jokalar berriak; baina, hori bai, taldearen oinarria pasatu den urteko bera izango da. Abuztuaren 22an hasi ziren ibartarrak entrenamenduekin, eta badirudi itxaropentsu eta gogotsu daudela denboraldi berriari begira; izan ere, lehenengo postuetatik mugitzea da haien asmoa.

## IBARRA ▶ EZBEHARRAK

## Ibartar bat hil eta lau zauritu dira asteburuan

N-1ean Irura parean gertatu zen, igandean

ERREDAKZIOA

Herenegun goizean —08:00ak inguruan— auto istripu batean hil zen hogeit urteko Laura M. M. ibartarra. Autoan zihozaren beste lau lagunak —Ibarrakokak eta Asteasuokak, eta 16 eta 22 urte bitartekoak, hain zuzen ere— zauritu egin ziren.

Zizurkilgo festetatik bueltan zetozela izan zuten istripua, antza, ezagutzen ez diren arrazoiengatik, Gasteizerako bidean, zihozaren beste lau gazteak, berri, Donostiako erietxera eramant zituzten maila ezberdineko zauriekin.

erreian geratu zen, eta Ertzaintza, suhiltzaileak eta anbulantziak bertara iritsi ziren segituan.

Laura M. M. gidariaren atzean zihozan istripua gertatu zen unean eta, dirudienez, kolpearen indarrak autotik aterarazi zuen. Gazte ibartarra istripuaren leku berean hil zen. Autoan zihozaren beste lau gazteak, berri, Donostiako erietxera eramant zituzten maila ezberdineko zauriekin.

Laura M. M. ren hileta elizkizunak atzo arratsaldean egin ziren Ibarrako San Bartolome parrokian.

## IBARRA ▶ KIROLAK

## Alaskako espedizioa bihar Gaztetxean

Unai Aizpuru eta Jon Goikoetxea ibartarrek eskainiko dute, 22:00etatik aurrera

I. TERRADILLOS

Bihar gauean, 22:00etatik aurrera, Unai Aizpuru 'Xandilio' eta Jon Goikoetxea 'Boli' ibartar mendizaleek Alaskara egindako espedizioaren diorama eskainiko dute Ibarrako Gaztetxean.

Pasa den maiatzean egin zuten espedizioan Mckinley gailurra igo zuten bi ibartarrek. Hauekin batera beste hainbat mendizale izan ziren, besteak beste, Anjel Navas tolosarra eta Manu Joubert alegiarra.



Mckinley gailurrean. HITZA

LEITZA ▶ FUTBOLA

# Partidu gogorra Aurrerarentzat, Ligako aurrenekoa

Aibaresek 3 eta 4 irabazi dio Arkixkilen, Ligako estreinako partiduko hiru puntuak eurentzat eskuratuz



Aurrerako jokalariek askotan iritsi ziren aurkariaren atera, aukera politik sortuz. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Asko sufritu zuten igandean, Ligako estreinako partiduan, Aurrerako mutilek: Aibarko taldea indartsu atera zen zelaira aurreneko unean beretik, eta markagailuan aurea hartu zuten; etxekoek erreakzionatu eta jokaldi ederrak egin zituzten, partidua, bai jokoz eta bai puntuz, berdintzea lortuz. Azken minututan, ordea, falta baten aldaratzean, Aibaresek garaiaren gola sartu zuten. Azkenean, Aurrerak 3 eta Aibaresek 4 bukatu zen partidua; ondorioz, aibartarrentzat izan ziren 2005-2006ko denbo-

raldiko lehen 3 puntuak Arkixkilen.

Horrelaxe izan ziren, bada, herenegungo partiduko gorabeherak. Esan bezala, Aibares taldea indartsu atera zen zelaira, eta leitzarren ate inguruan presio handia egin zuten, azkar samar, markagailura 0 eta 2koa igotzea lortuz. Gol bat eztabaidatu izan zen penaltiz sartu zuten, eta bestea, berriz, korneretik botatuko zuzeneko baloia izan zen, tanto polita. Gauzak horrela, Aurrerako jokalariek sortzen zituzten aukerak baliatzen hasi ziren, aurkariaren area ingurura maiz joan eta oso baloikada onak presta-

tzen, partiduen aurreneko zatia bukatzerako 1 eta 2koa lortuz, de Karlosek buruz egingutako. Aipatzekoa da Aurrerako aldeko penalti bat ere adierazi zuela epaileak, baina Barberiaren jaurtiketa Aibarko atezainaren eskuetara joan zela. Horrela joan ziren atsedenera: aukerak sortu, baina baloia sareetara sartzeko zorte gutxirekin.

Bigarren 45 minututan, hasieran, berriz ere aurkako penaltia jaso zuten leitzarrek, eta partidua maldia gora jarri zitzaizen, lehenaz gainera, 1 eta 3koarekin. Hautsi-urratuan, ordea, taldeak, baimendutako

4 aldaketak eginez eta sortutako aukerak baliatuz, markagailua berdintzea lortu zuten: 2-3koa Jon Arangoak eskuratu zuten, falta jaurtiketa bateko errebotetako baliatuz; eta 3-3ko berdintzetara Hegoi Bengoetxeak egin zuten, bere debuteko partiduan, areaz kanpotik botatutako jaurtiketa zuzenez. Partidua bukatzeko 17 minutu gelditzen ziren. Lan asko egin behar izan zuten leitzar gazteek, aurka zuten markagailuari buelta ematen, baina azken minutuan, jaurtiketa baten errebotetaz baliatuz, aibartarrek beren 4. gola sartu zuten Abuzaren ateko sarera. Horrelaxe bukatu zen igandeko saioa: 3 eta 4ko emaitza Aibaresentzat, eta horrekin, noski, jardunaldiko 3 puntuak.

Aipatzekoa da Unai Olanok, biraketa batean, belauneko bihurtza izan zuela, eta lesioa aterata zela zelaitik. Atzo medikuntza joatekoa zen.

Aurrera futbol taldeko arduradunekin egonda, ez zuten galtzerik espero: «Ez genuen horrelako emaitzarekin bukatuko genuenik espero, ezta gutxiagorik ere», zioten. «Aukerak sortu, sortu ditugu, baina gero ez ditugu baliatu. Hor egon da gakoa», adierazi zuten. «(Iaz ere aurrenekoa galdu egin genuen. Denboraldi-aurrera partidua bakarra jokatu dugu eta agian, zelaian jokatzeak martxa hartzeko dugu, eta hori nabaritu da», argitu zuten. Edozein moduz, taldea berria da, prestatzaileak ere bai, eta pixkanaka tinua hartuko diote: «Hurrengo astean ziur gaude hobeki ariko garela», halaxe zioten.

Hurrengo igandean dute berriz partidua. Oraingoan, Kasedan, hango Beti Kasedano taldearen aurka. «Lehen-lehen akaso jokatu izanen zuten Aurrerak haren aurka, baina guk ez dugu talde hori ezagutzen. Guretzat berria da, eta erne joan beharko dugu», zioten Aurrerako gazteek. Kasedako talde hau maila honetan baina beste talde batean aritu izan baita jokatzeko orain arte, eta ez dute elkarrekin jokatu.

LEITZA ▶

## Bengoetxea VI.ak min hartu du hatz alferrean

Logroñoeko jaietako sanmateotako ferian parte hartzerik ez du izanen leitzarrek



Oinatz Bengoetxea. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Bengoetxea VI.ak, Oinatz Bengoetxeak, min hartu zuten Lekeitioko txapelketan, finalean. Atzo jakitera eman zutenenez, pilotari gazteak «eskuin eskuko behatz alferra hautsi» zuten, behatz tikiaren ondoko, eta ondorioz, gutxienez «hurrengo hiru asteetan» ez omen du jokatzeko izanen, nabarmendu zutenenez.

Horrela, oraintxe hastear dagoen sanmateotako ferian, Logroñoeko (Espainia) festetan egiten duten txapelketan, parte hartzerik ez du izanen pilotari leitzarrek. Hain zuzen ere, txapelketa honekin bukatzen dira udako torneoak, eta Bengoetxeak horietan gutzietan jokatu badu ere, honetan egiterik ez du izanen. Berak zionez, «(Iaz handia) zuten feriarako, baina «gauzak halaxe suertatzen dira».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Ibañeta-Luzaide sei orduko ibilaldia antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, behe. 943 65 27 89).

**Villabona.** Aizkardi Mendi Elkarrekin Pirinioetara irteera antolatu du hilaren 17 eta 18rako. Izena emateko deitu 943 69 44 58 telefonora edo elkarrekin egoitzara azaldu, ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara.

**Villabona.** Hirugarren Adineko XXI. Astea izango da hilaren 19tik 25era: mus, tute, escoba, chinchon, seiak, bote, toka eta tiro txapelketak, marmitako lehiaketa eta bazkaria Arratzainen. Izen-ematea, 16 arte, Biltoki elkartean.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Mertebe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.

**Tolosa.** Garbiñe Biurrun eta Maria Jesus Mendizabal bazkideek egindako eskulan eta pinturen erakusketa, La Jara zentroan. Extremadurako Astearen baitan.

**Tolosa.** Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** Rosa Maria Ruizen margolanak ikusgai daude egunotan Sorron enmarkazio dendan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (107,5 FM)**  
11:00. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotza*. Eguraldia Joxe Landarekin, albisteak, eskualdeko oharrak...  
11:50. Herri kirolak, Joxeanjel Sarasolaren eskutik.  
12:10. Agenda.  
12:20. Anjel Cuervo abenturazaleari elkartzeketa.  
13:10. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.  
13:15. Lehiaketa eta disko eskainien tartea.  
19:00-21:00. 19:00etatik 21:00etara. *Tolosaldeko Ahotza*-ren errepikapena.  
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

# Paradisua eta infernua

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Pirinioetan jasotako irudiak eta Indonesian ateratakoak bidali dizkigute irakurleek lehiaketarako**



**MIDI D'OSSEAU ▶**

**Leire Arreseigor (Amezketeta).**

Pirinioetara joan da oporretan Leire Arreseigor, eta han jasotako irudi batzuk bidali ditu HITZAREN ARGAZKI LEHIAKETARA. «Horien artean, Midi d'Osseauri ateratako argazki batzuk daude, honakoa kasu», dio amezketarrak.

**'INFERNUAREN EDERTASUNA' ▶**

**Pello Ezeiza.**

Indonesia aldean paraje ederrak aurkitu ditu Pello Ezeizak. Testubio hau prestatu du bere argazkiaren deskribapena egiteko: «Indonesian, gure bizitzan bezala, infenua eta paradisua gertu aurkitu genezake. Biek erakartzen gaituzte, biek dute bere xarma. Bromo eta Semeru sumendiak dira, Javan».



**AGURRAK ▶**



**ONGI ETORRIAK**  
**Oier eta Ione.**  
Zorionak eta urte askotan.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara:**  
Araba etorbide, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**